


PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK EGITEKO ORIENTABIDEAK

Lehen Hezkuntza eta
Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntza



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Programazio didaktikoak egiteko orientabideak

Lehen Hezkuntza eta
Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2013

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:
1.a, 2013ko iraila

Ale-kopurua:
600 ale

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Itzulpena:
IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Inprimaketa:
Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua.

L.G.: XXXXXXXX

Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. Zergatik eta zertarako egin programazioak	9
3. Programazioa egiteko gida	
3.1. Programazioa	11
3.2. Osagaiak	13
3.2.1. Helburuak	13
3.2.2. Edukiak	15
3.2.3. Metodologia	18
3.2.4. Ebaluazioa	26
4. Bibliografia	35
5. Eranskinak	
1. Programazio didaktikoaren ezaugarriak	39
2. Oinarritzat duen araudia	41
3. Programazioa egiteko ereduazko txantiloia	45

1. Sarrera

Berritzegune Nagusiko, ISEI-IVEIko eta Hezkuntza Ikuskaritzako kidez osatutako lantalde batek egin du programazio didaktikoei buruzko dokumentu hau. Dokumentuaren helburua da interpretazio berbera egitea guztiok, bai irakasleek, bai eta aholku emateko eta ebaluatzeko ardura dutenek ere.

Alde horretatik, adierazi behar da irakasleek eta zuzendariek hezkuntza-jarduera arautzen duen araudia hartu behar dutela erreferentziatzat erabakiak hartzeko, baina araudi hori ez dela beti behar bezain argia, eta litekeena dela interpretazio bat baino gehiago egotea. Horrek zaildu egiten du programazio didaktikoak egitea.

Hala gertatzen da, esaterako, 2008ko uztailaren 7ko Aginduarekin, Oinarrizko Hezkuntzan ikasleen ebaluazioa arautzen duenarekin. Izan ere, ebaluaziorako erreferentzia ezartzean, termino eta kontzeptu desberdinak erabiltzen ditu. Kasu batzuetan, ebaluaziorako erreferentzia oinarrizko gaitasunekin lotzen du; beste batzuetan, irakasgai guztiari dagozkien gaitasunekin; beste batzuetan, egindako irakasgaien helburuekin...

Bestalde, oinarrizko gaitasunak curriculumean sartzeak (175/2007 Dekretua, urriaren 16koa) eta, gero, gaitasun horiek programazio didaktikoetan txertatzeak ere zenbait interpretazio izan ditu. Batzuetan, oinarrizko gaitasunak curriculumetik kanpo dauden elementu gisa aurkeztu dira; beste batzuetan, berriz, curriculumaren barruko elementuak balira bezala.

Beraz, beharrezkoa da zehatz-mehatz eta irizpide bereberekin finkatzea funtsezko elementuak, programazio didaktikoa egin ahal izateko. Aipatu ditugun bi alderdi hauek finkatu behar dira batez ere: zein diren Oinarrizko Hezkuntzako ikasleak ebaluatzeko erreferentziak, eta nola antolatu behar diren oinarrizko gaitasunak.

Lanari ekitean, lantaldeak honako premisa hauek hartu zituen oinarritzat:

- Lehenik eta behin, ebaluaziorako erreferentziak arloetako edo irakasgaietako helburuak izatea erabaki zen. Hala ezartzen du urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoak, 34.3 artikuluan: *“Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailak amaituta... ikasleak maila batetik bestera igaroko dira, ikasitako irakasgaietako helburuak gainditzen badituzte edo gehienez ere bi irakasgaitan ebaluazio negatiboa izan badute; hiru jakintzagaitan edo gehiagotan ebaluazio negatiboa izan badute, aldiz, osorik errepikatu beharko dute dagokion maila...”*. Hortaz, erabaki zen 2008ko

uztailaren 7ko Agindua interpretatzean honako hau ulertuko zela: Lehen Hezkuntzako arloak gainditzeko eta DBHko irakasgaiak gainditzeko, ziklo edo maila bakoitzean haietarako finkatuta dauden helburuak gainditu beharko direla. Helburu horiek oinarritzko gaitasunak hartuko dituzte barnean.

- Bigarrenik, arlo edo irakasgai bakoitzeko programazio didaktikoa osatzen duten elementuak finkatu ziren, oinarritzko alderdiak eta alderdi garrantzitsuenak hartuta oinarritzat. Horregatik, helburuak finkatzeaz gain, programazioan honako hauek ere agertu beharko dira: edukiak, metodologia, ebaluazio-irizpideak, ebaluazio-tresnak, kalifikazio-irizpideak eta ebaluazioaren ondorio gisa hartutako erabakiak.
- Azkenik, erabaki zen komeni zela aniztasunari ematen zaion arreta, normalean programazioetan agertzen den elementuetako bat, ez izatea atal bereizi bat, baizik eta inklusibotasun-printzipioa kontuan hartzea programazioko elementu guztietan.

Adierazi dugun guztiaren ondorioz, dokumentu honetan, beste atal batzuez gain, arloko edo irakasgai programazio didaktikoa osatzen duten elementu guztien definizioa zehaztu dugu, eta galdera gako batzuk gehitu ditugu, programazioa egiten duten irakasle-taldeek beren lana gidatzeko asmoz, aholkulariek orientabide batzuk edukitzeko, eta kanpoko ebaluazioa egin behar dutenek tresna gisa erabiltzeko.

Gainera, Lehen Hezkuntzako ziklo jakin baten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila jakin baterako ereduak gehitu ditugu, programazioa osatzen duten elementuetako bakoitzerako (helburuak, edukiak, metodologia, ebaluazio-irizpideak, kalifikazio-irizpideak eta ebaluazioaren ondorioak).

Laburbilduz, talde honek egindako lanaren helburua da dokumentu adostu bat sortzea, lagungarri izan dakien ikastetxeei arloen eta irakasgaien programazio didaktikoak egiteko, eta lagungarri izan dakien, halaber, aholkularitza- eta ebaluazio-lanak egiten dituzten hezkuntza zerbitzuei, lan hori modu koordinatu eta koherentean egiteko. Dena den, ikastetxe bakoitzak bere Curriculum Proiektua finkatzeko erabakiak hartu ahal izango ditu arloko edo irakasgai programazio didaktikoetan, dagokion autonomia pedagogikoaren barruan.

Azkenik, lana koordinatzeko ildo horri jarraituz, EAEko unibertsitateei dokumentu honen berri emango zaie, programazio didaktikoak egiteko modu bateratu bat izan dezaten, irakasleen hasierako prestakuntzan nahiz etengabeko prestakuntzan.

2. Zergatik eta zertarako egin programazioa

Programazio didaktikoa irakasle-lanaren atal bat da, eta irakasteko eta ikasteko prozesua hobetzearekin lotuta dago. Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten ditu, lortu nahi diren helburuak aztertzen ditu, eta, beraz, irakasle-taldeak ikasleek ahalik eta arrakastarik handiena lortzeko hartzen dituen erabakiak zehazten ditu. Aurretiko hausnarketa horiek egokiak eta errealistak izatearen baitan egongo da, neurri batean, programazioaren kalitatea, bai eta egingo den proiektuaren emaitza ere.

Programazioa hezkuntza-jardueratik eta ikasgelako lanetik hurbilen dagoen zehaztapen maila da, eta haren helburuak lotura zuzena du irakasteko eta ikasteko prozesuaren kudeaketa praktikoarekin eta horren bidez lortzen den emaitzarekin. Hezkuntza-asmoak zehazten dituen dokumentua da.

Zuzenean eragiten dio irakasleen lanari; izan ere, irakasleen funtzioetako bat da esleituta dituzten arloak, irakasgaiak eta moduluak programatzea eta irakastea (2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa; 91. artikulua), alde batera utzita inprobisazioa eta hezkuntza-justifikazioarekin loturarik ez duen hezkuntza justifikazio gabeko aktibismoa. Era berean, ikastetxeko irakasle-taldearentzako esparru koherente bat da. Programazioak ikasleekin ere badu zerikusia; izan ere, zikloaren edo ikasmilaren amaieran nahitaez lortu behar dituzten ikaskuntzak eta espero daitezkeen ikaskuntzak finkatzen ditu. Azkenik, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-komunitateari eragiten dio; izan ere, aurrez Hezkuntza Proiektuan eta, are zehazkiago, Ikastetxearen Curriculum Proiektuan hartutako erabakiak testuinguruan zehazten ditu. Beraz, hezkuntza-jarduerari laguntzen dio ikasturte osoan.

Gainera, programazio didaktikoa egiteak araudiak ezarritako betebeharrak bati erantzuten dio: ebaluazio objektibo bat izateko eskubidea bermatzeari, hain zuzen. Ezinezkoa da eskubide hori bermatzea, ez bada edukien, helburuen eta ebaluazio-irizpideen publikotasuna ziurtatzen aurrez. Publikotasun horri esker, ikasleek eta haien gurasoek edo adingabeen legezko ordezkariak alderdi horien berri izango dute.

Beraz, programazio bat egitea irakasle-taldeak hartu beharreko erabakien barruan sartzen da, eta irakasle bakoitzak bere hezkuntza-jarduerari buruz duen kontzientzia areagotzeko balio du. Horretarako, egokia, zehatza, malgua eta bideragarria izan behar du.

Ikastetxe bakoitzak programazio didaktikoaren eredu jakin bat aukera dezake (arloka edo irakasgaika, alorka, proiektu orokorka edo diziplina arteko proiektuka...), bere autonomiaren garapenaren barruan, baina ikastetxeko plangintza-dokumentuetan hartutako erabakiak lotesleak izango dira irakasle guztientzat, Euskal Eskola Publikoari buruzko

Legeak 48.2 artikuluan eta urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak 21. artikuluan ezarritakoaren arabera. Alderdi hori berariaz gogorarazi izan da etapa bakoitzean ikasturtea antolatzeari buruz egiten diren urteko ebazpenetan.

3. Programazioa egiteko gida

Honako hauek hartzen ditu barnean gidak:

- Programazioko osagaien (helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa) **definizioa**, bai eta ezaugarri batzuk eta gogoeta orokor batzuk ere.
- **Kontrol-galderak**, programazioa egiten duen irakasle-taldeak bere lana (programazioaren ezaugarriak, kalitatea eta zehaztasun-maila) ebalua dezan. Galdera-zerrenda hori erreferentzia bat baino ez da (osatu edo zehaztu daiteke gehiago), baina baliagarria izan daiteke funtsezko alderdi batzuk ez ahazteko. Horrez gain, baliagarria izan daiteke Berritzeguneko taldeek aholkuak emateko duten funtzioa gauzatzeko, bai eta Hezkuntza Ikuskaritzak ebaluazio- eta kontrol-lanak egiteko ere.
- Curriculumeko arlo edo irakasgairen bateko osagaien **adibideak**.

Aurkeztuko ditugun adibideak programazio oso baten zatiak dira. Programazioko elementuen koherentzia horizontala egiaztatu ahal izateko aukeratu dira.

3.1. PROGRAMAZIOA

Definizioa

Programazioa honako hau da: ziklo edo ikasmila bateko arlo edo irakasgai jakin batean ikasle-talde jakin baterako erabiliko den irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza sistematizatua.

Kontrol-galderak

- Taldearen ezaugarriei eta ikasleen aniztasunari modu inklusiboan erantzuteko aukera ematen al du?
- Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP) zehazteko balio al du (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko dekretua garatzen du ICPk)?
- Programazioaren osagai guztiak al ditu?:
 - arloaren edo irakasgaiaren helburu orokorrak
 - edukiak
 - metodologia
 - ebaluazioa
- Programazioaren osagaiak ikasle guztien oinarrizko gaitasunak garatzeko balio al dute?
- Koherentea al da arlo edo irakasgai honen programazioaren planteamendua etapa osoan zehar?
- Koherentea al da programazioaren planteamendua hezkuntza-maila (zikloa edo ikasmila) bereko gainerako programazioekin?

3.2. OSAGAIAK

3.2.1. HELBURUAK

Definizioa

Helburuak hezkuntza-jardueraren zertarakoak dira. Zehazten dute zer jakin, alderatu, lotu, aplikatu, ulertu, azaldu, aztertu, interpretatu edo bereizi beharko duten ikasleek zikloaren edo ikasmailaren amaieran. Honako hauek dituzte erreferentziatzat: etapako helburu orokorrak, arloaren edo irakasgaiaren helburuak, eta oinarrizko gaitasunak.

Kontrol-galderak

- Bat al datoz arloko edo irakasgaiko helburu orokorrek?
- Mailakatuta al daude etapako ziklo eta ikasmailetan zehar?
- Helburuek barnean hartzen al dituzte oinarrizko gaitasunak?
- Helburuen osotasunak oinarrizko gaitasun guztiak hartzen al ditu barnean?
- Erantzuten al diete zer, nola eta zertarako galderari?
- Lotura al dute helburu guztiek ebaluazio-irizpideekin?
- Helburuek itxaropen handiak jartzen al dituzte ikasleengan; hau da, gutxienekoen programaziotik harago al doaz?

HELBURUAK
ADIBIDEA [LH]

LEHEN HEZKUNTZA: 3. zikloa
NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA

Giza gorputzaren organo garrantzitsuenak (zelulak, organoak, aparatuak eta sistemak) ezagutzea, gorputzaren funtzionamendua eta osasun-ohituren arteko loturaz jabetzeko, nork bere fisikoa eta sexu-nortasuna onartuz eta desberdintasunak positiboki balioetsiz, osasuna denon ondasuna dela ulertzeko.

HELBURUAK
ADIBIDEA [DBH]

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA: 3. maila
MATEMATIKA

Gizartean (albisteetan, iritzietan, iragarkietan...) nahiz mundu akademikoan agertzen diren elementu matematikoak (zenbakiak, datu estatistikoak, grafikoak, planoak, kalkuluak, irudiak, zoria...) identifikatzea, lotzea, deskribatzea eta adieraztea, kritikoki aztertuz zer funtzio duten jasotako mezuak eta informazioa hobeto ulertzeko eta erabiltzeko.

3.2.2. EDUKIAK

Definizioa

Edukiak honako hau dira: arloko edo irakasgaiko helburuak lortzeko modu integratuan landu behar diren prozedurak, kontzeptuak eta jarrerak. Jarritako helburuak lortzeko bitartekoak dira, eta unitate didaktikotan, sekuentzian, ikaskuntza-nukleotan, proiektutan eta antzekoetan egituratuta egon behar dute.

Kontrol-galderak

- Aukeratutako edukiek bermatzen al dute ikasle guztiek oinarrizko gaitasunak garatuko dituztela eta jarritako helburuak lortuko dituztela? Koherenteak al dira curriculumarekin?
- Erakusten al dituzte emakumeen eta beste kultura batzuen ekarpenak?
- Aukeratutako edukiek ikuspegi orokorra edo diziplina arteko ikuspegia sustatzen al dute?
- Identifikatu al dira nahitaezko edukiak? Eta neurri espezifikokoak behar izan ditzaketen eduki konplexuagoak?
- Lehentasuna eman al zaie prozedurazko eta jarrerazko edukiei?
- Edukiak unitate, proiektu edo sekuentzia koherentetan antolatuta al daude?
- Zehaztu al da unitateen, proiektuen eta halakoen denboralizazioa?
- Aurkezpena ikasle guztiek erabiltzeko modukoa al da?
- Kontuan hartzen al dute ikasleen aniztasuna, eta errazten al dute zabaltzeko nahiz indartzeko neurriak hartzea edo egokitzapenak egitea?

LEHEN HEZKUNTZA: 3. zikloa
NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA
Proiektua: Osasuna

3. eduki-multzoa: Osasuna eta garapen pertsonala

- **Giza gorputzaren funtzionamendua.** Anatomia eta fisiologia.
- Aparatuak eta sistemak:
 - *Elikadura (arnas, digestio-, zirkulazio- eta iraitze-aparatua).*
 - *Ugalketa (ugaltze-aparatua).*
 - *Harremanak (zentzumen-organoak, nerbio-sistema).*
- **Egungo gaixotasun arruntenak:** arnas gaixotasunak, estresa, lan-istripuak, zirkulazio-istripuak...
- **Bizimodu osasungarriak izatea.** Organo eta aparatuak zaintzeari eta mantentzeari buruzko hausnarketa.
- Nortasun pertsonala. Nork bere burua ezagutzea eta maitatzea. Ekintza eta zereginak planifikatu eta egiteko autonomia. **Bere kabuz erabakiak hartzeko gai izatea.**
- Esfortzu eta lan pertsonala, zereginetan jarrera aktibo eta arduratsua izanda, autokritikoki jokotuta eta nork **bere gaitasunetan konfiantza** izanda.

4. eduki-multzoa: Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza

- Egoerak eta arazoak aztertze hainbat iturritako informazioa biltzea.
- **Taldean lan egitearen aldeko jarrera,** lankidetzarako eta parte hartzeko jarrera arduratsuak agertuz.

OHARRA: Adibide hauetan, nahitaezko edukiak letra lodiz adierazi dira.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA: 3. maila**MATEMATIKA****Unitatea: ZORIA ETA PROBABILITATEA****5. blokea: Estatistika eta Probabilitatea**

- Ausazko saiakuntzak eta saiakuntza deterministak.
- **Zoriaren hizkuntzara hurbiltzea**
- Lagin-espazioa. Oinarrizko gertaera eta gertaera konposatuak. Gertaera ziurra eta ezinezko gertaera.
- Eragiketak gertaerekin: gertaeren bilketa eta ebaketa.
- Gertaera bateragarriak eta gertaera bateraezinak.
- Maiztasun absolutuak eta erlatiboak.
- Ausazko gertaera baten **probabilitate kontzeptua**.
- Ausazko saiakuntza baten lagin-espazioa eta oinarrizko gertaerak lortzea.
- **Bi gertaera jakinen bilketa eta ebaketa kalkulatzeko**.
- Gertaera bateragarriak, bateraezinak eta aurkako gertaerak bereiztea.
- Gertaeren maiztasun absolutuak eta erlatiboak lortzea.
- **Gertaera baten probabilitatea lortzea, maiztasun erlatiboaren bidez** (zenbaki handien legea)
- **Laplaceren legea erabiltzea** zenbait gertakariren probabilitateak kalkulatzeko **ekiprobabilitate-testuinguruetan**.
- Zoria interpretatzean ohikoak diren akatsez jabetzea.
- **Ausazko fenomenoetarako buruzko informazioen azterketa kritikoa**.
- Eguneroko bizitzako zenbait testuingurutan probabilitateak kalkulatzearen garrantzia balioestea.

1. blokea: Eduki komunak

- **Heuristikorik ohikoenak aplikatzea, ausazko problemak ebazteko:** zehaztasunez zenbatzea, zuhaitz-diagrama erabiltzea, kontingentzia-etaulak erabiltzea...
- **Material eta programa informatikoak erabiltzea**, zoriarekin lotutako simulazioak eta aieruak egiteko.
- Ausazko problemen ebazpenak bilatzen saiatzea behin eta berriz malgutasunez.

2. blokea: Zenbakiak eta Aljebra

- **Zatikiekin eta zenbaki hamartarrekin egindako eragiketak kalkulatzeko** ausazko problemak ebazteko testuinguruetan.

3.2.3. METODOLOGIA

Definizioa

Metodologia honako hau da: irakasteko eta ikasteko prozesuaren antolaketari buruzko erabakien multzoa, honako alderdi hauek lantzen dituena, inklusibotasun-printzipioari jarraituz:

- edukien aukeraketari buruz hartutako erabakiak
- edukien antolaketa
- jarduera motak
- ikasleen taldekatzeak
- erabili beharreko baliabideak
- lekuen eta denboren antolaketa
- ebaluaziorako printzipioak eta prozedurak...
- irakasleen eta ikasleen eginkizuna...

Metodologiak barnean hartzen ditu metodoak, estrategiak, jarduerak, baliabideak...

Kontrol-galderak

- Estrategia metodologikoen aniztasunari arreta sustatzen al dute, eta lagungarriak al dira zabaltzeko eta indartzeko neurriak hartzeko nahiz egokitzapenak egiteko?
- Materialak, baliabideak eta jarduerak ikasle guztiek erabiltzeko modukoak al dira?
- Ematen al ditu zenbait laguntza, hala nola tutoretzak kideen artean, tutoretzak beste heldu batzuekin, material osagarrien erabilera eta taldekatze desberdinak...?
- Ikasgelako giroak sustatzen al du ikaskuntza (motibazioa, parte-hartzea, autoerregulazioa, konfiantza, baloratua sentitzea, norberaren ikaskuntzaren protagonista sentitzea...)?
- Sortzen al dira autoerregulazio-egoerak, bultzatzen al da ikasleek ebaluazio-prozesuan parte hartzea?
- Sustatzen al du ikasitakoa ahoz edo idatziz komunikatzea? Sustatzen al du ikasitakoa zenbait modutan irudikatzea?
- Sustatzen al du arloen/irakasgaien arteko lotura? Erabiltzen al ditu metodologia orokorrak edo diziplina arteko metodologiak?

- Programazioa koherentea al da, ikuspegi metodologikotik, talde beraren gainerako programazioekin?
- Sustatzen al du arazoak konpontzea, sormena, ikerketa, pentsamendu kritikoa, pentsamendu dibergentea...? Jardueren aukeraketa koherentea al da planteamendu honekin?
- Bultzatzen al du berdinen artean harremanak izanez eraikitzea jakintza?
- Bultzatzen al du ikasteko autonomia? Bultzatzen al du ikasleek erabakiak hartzea?
- Taldekatze mota bakoitza (talde-lana, banakako lana...) lotzen al du dagokion jarduerarekin?
- Bultzatzen al da era askotakoak diren eta euskarri desberdinetan dauden informazio-baliabideak eta -iturriak erabiltzea?
- Bultzatzen al da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu integratu eta esanguratsuan erabiltzea?
- Sustatzen al du espazioa eta denbora zenbait modutan antolatzea?
- Bultzatzen al du ebaluazio hezigarria?

LEHEN HEZKUNTZA: 3. zikloa

NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA

Irakasleen eta ikasleen eginkizuna

Irakaslea. Lehenengo eta behin, irakaslea ikasleen laguntzailea eta gidaria izango da, hau da, ikasleei eskuragarri duten informazio askotarikoa biltzen, hautatzen eta bereganatzen lagunduko die. Bestetik, irakasleak ikasleek ebatzi ditzaketen erronkak planteatu eta horiek eabazteko prozesuak abian jarriko ditu, ikaskuntza-egoera irekiak abiaraziz, beti ere ikasleen interesak kontuan harturik. Horrez gain, irakasleak arloarekiko jarrera baikorrak sustatuko ditu.

Ikaslea. Ikasleek euren ikaste-prozesuaren ardura hartu beharko dute, hots, prozesua erregulatzen ikasi beharko dute, beren egitekoak planifikatuz eta hobetu behar dituzten alderdiak identifikatuz. Ikasle bakoitzak bere esperientziak, ikaskuntza-estilo eta zaletasun propioak ditu. Aniztasun hori ondo kudeatzeko, honakoak egingo ditugu:

- Ikasgelan lankidetzak eta laguntza-giro ona sortu.
- Askotariko jarduerak eskaini.
- Ikasleei aukera eman jardueretan zenbait mailatan parte hartzeko.
- Ikasleak motibatu, beren interesak eta aurretiko esperientziak eta ezagutzak kontuan izanda.
- Finkatze- eta zabaltze-jarduerak eskaini, gure ikasleen maila kontuan hartuta.

Edukiak hautatzeko eta antolatzeko irizpideak

Edukiak ikaskuntza-proiektuetan antolatuko dira, modu integratuan.

Edukiak hautatzeko, irizpide desberdinak hartu dira kontuan: lehenengo eta behin, Lehen Hezkuntzaren helburu orokorrak lortzeko eta oinarriko gaitasunak garatzeko lagungarriak diren edukiei eman zaie lehentasuna; bigarrenik, munduari buruzko informazio askotarikoa emateaz gain, horiek ulertzeko eta interpretatzeko tresnak ere ematen zaizkie ikasleei.

Arlo honek galderak egitera eta horientzako erantzun baliagarriak topatzera bultzatzen ditu adin horretako ikasleak; erantzun horiek gaur egungo irizpide zientifikoekin koherenteak izango dira, ezagutza zientifikoa eraikitzeko eran trebatuz.

Kontzeptuak, prozedurak eta iarrerak orekatuta eta elkarri lotuta daude.

Jarduera motak

Konpetentziak jarduera mota hauen bidez garatuko dira: esperimentazioa, ikerketa, landa-lana, irteerak, bisitak, behaketa zuzena... Jardueretan garrantzi handia izango du informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerak.

Edukiei zentzua emateko, testuinguru hurbilean kokatutako eta eguneroko bizitzari lotutako interesgune bat izango da unitateen abiapuntua.

Metodologia ikertzailea izango da, hau da, edukiak bizitzako problemak aztertu eta ebaztearen inguruan antolatuko dira.

Ikasleen taldekatzeak

Une zehatz batzuetan ikasleek banakako lana egin beharko duten arren, talde-lana planteatuko da, arlo honen ezaugarriek eskatzen dituzten jarduera motak kontuan hartuta: ikerketak, informazioa bilatzea, elkarrizketa, eztabaida... Horretarako, irakasleak argibide zehatzak emango dizkie ikasleei, lanari ahalik eta etekin handiena ateratze aldera.

Hasieran lana talde handian egingo da, sekuentzian zehar landuko denaren aurkezpena egiteko eta ikasleen aurre-ezagupenak azaleratzeko eta motibazioa pizteko. Horrez gain, ikasle guztiek batera lan egingo dute ondorioak atera behar diren momentuetan.

Gehienbat ikasketa kooperatiboa bultzatuko da, eta, horretarako, lan kooperatiboa garatu ahal izateko egoerak planifikatuko dira.

Ebaluaziorako printzipioak eta prozedurak

Planteatzen den ebaluazio mota autoerregulatzen jakitean datza, hau da, ikasketa-helburu bat lortzeko jarduerak planifikatzen jakiteko ahalmenari lotutako ebaluazioa. Horretarako, funtsezkoa da ikasleek honakoak kontrolatzea:

- Egiten dutenaren helburua, zertarakoa.
- Helburu hori lortzeko prozesua: atalak, hurrenkera eta planifikazioa.
- Egiten dihardutena ondo betetzen ari diren ala ez jakiteko irizpideak.

Ebaluazio-jardueren ardatza oinarrizko gaitasunen lorpen maila izango da. Kontzeptuzko edukiak osagarriak izango dira ebaluatzeko zein kalifikatzeko.

Ebaluazioaren atalean gehiago zehazten dira ebaluaziorako erabiliko diren irizpideak eta tresnak.

Baliabideak

IKTak. Eskola 2.0 egitasmoa baliabideak izango ditugu: arbel digitala gela osorako eta ordenagailu eramangarri bana ikasle bakoitzarentzat. Hori kontuan izanda:

- Informazioa bilatzeko Internet erabiliko dugu.
- Gaiak aurkezteko, txostenak idazteko eta sekuentzia-amaierako ekoizpenetarako open office paketeak eskaintzen dituen aplikazioak erabiliko dira.

Baliabide bibliografikoak. Testuliburua erabiliko da. Euskarri hori gelan bertan izango diren liburu eta aldizkariekin osatuko da. Horretaz aparte, eskolako liburutegian dagoen liburu bildumaz baliatuko gara. Bestetik, esperimenduak egiteko laborategira joango gara, bertan dauden materialak erabiliz.

Espazioen eta denboren antolaketa

Gela eta ikastetxeko eremuez gain, ingurune hurbila eta irteerak erabiliko dira ikasketak ahalbidetzeko.

Denbora. Prozesua behar bezala bideratzeko, sekuentzia didaktiko bakoitzaren garapenari behar den denbora dedikatuko zaio. Baina, horretarako, garrantzitsua da, era berean, ikasleek ikasteko duten denbora optimizatzea, prozedura zehatzak ezarriz, klase-saioak puntualki hasiz, eta mozketak arau argien bidez saihestuz.

Espazioa. Gela barruan bi espazio bereizi daude:

- Toki komuna, ikasle guztientzat. Espazio honen distribuzioa talde txikietan (binaka eta launaka) lan egiteko aproposa da.
- Toki espezifikoak:
 - *Esperientzien txokoa: eguneroko bizimoduko materialez hornitutako lekua. Ikasleek era autonomo batean lan egin dezakete bertan.*
 - *Proiektuen txokoa: espazio hau aukerakoa da. Hona hurbiltzen dira talde osorako proposatutako lanak lehenago amaitzen dituzten ikasleak.*

Gelaz kanpoko espazioak garrantzitsuak dira arlo honetan, adibidez naturarekin esperientziak izateko. Horrela, eskolako lursail bat erabiltzen dugu ortua jartzeko. Bestetik, gure herria ere oso espazio interesgarria da, eta irteerak eginez ikasleek euren ingurunean dituzten bizimodua eta giza harremanak behatzeko eta ezagutzeko parada izaten dute.

Espazioa modu dinamikoan (malgua eta aldatzeko aukerak emanez) antolatuko da, talde-harremanak sustatzeko. Bestetik, ikasleen ekoizpenak agerian jarriko dira, ikasgela taldearen partaidetza- eta kohesio-gune izan dadin. Ikasgelaz gain, ikastetxeko beste espazio batzuk ere erabiliko dira: liburutegia, erabilera anitzeko aretoa... eta baita ikastetxetik kanpokoak ere: irteerak egiteko, emanaldietara joateko (antzerkia, zinema, erakusketak...).

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA: 3. maila
MATEMATIKA**

Metodologiaren oinarria problemak ebaztea da, eta printzipio hauek hartzen ditu kontuan:

- **Ikasleen aurretiko ideietatik abiatzea**, modu esanguratsuan ikasteko gai izan daitezten. Hori dela eta, nukleo bakoitzean eta unitate didaktiko bakoitzean, unitate bakoitzeko edukiak landu baino lehen, ikasleen aurretiko ideiak aztertuko dira.
- **Garrantzia ematea ikaskuntzen funtzionalitateari**, gero edukiak zenbait egoeratan aplikatu ahal izateko.
- **Blokeetako edukien artean dauden loturak azpimarratzea**. Blokeak ezin dira konpartimentu estankoak izan, eta ikasleek, pixkanaka-pixkanaka, zenbait jardueraren bidez, edukien artean lotura-sare aberats bat dagoela ikusi beharko dute.
- Banakako lana eta taldeko lana txandakatzea, ikasleek lankidetzan ikas dezaten sustatzeko.
- **Gaitasunak kontuan izatea**, eta haiek garatzeko jarduerak planifikatzea.
- **Zenbait adierazpide (hitzezkoa, grafikoa, sinbolikoa) erabil daitezten sustatzea**, bai eta adierazpide batetik beste batera transferentziak egin daitezten sustatzea ere.
- **Baliabide teknologikorik egokienak erabiltzea**.

Metodologiarekin lotuta hartzen diren erabakiek ikastetxearen errealitaterako egokiak izan behar dute, eta ikasleen aniztasuna kontuan hartu behar dute guztiek. Erabakiek eragina dute zenbait alderditan:

Irakasleen eta ikasleen eginkizuna

Ikaslea da hezkuntza-prozesuaren protagonista nagusia. Beraz, modu aktiboan parte hartu behar du ikaskuntzan, eta, horretarako, ikaskuntza-egoerek parte-hartze aktiboa bultzatu behar dute eta ekimenez, sormenez, autonomiaz eta zehaztasun intelektualaz jokatzeko eskatu behar diete ikasleei.

Metodologia hori gauzatzeko, irakasleak ikasleentzat egokiak diren Matematikako jarduerak aukeratu eta diseinatu beharko ditu, diskurtso matematikoa hasten lagunduko die ikasleei, eta diskurtso horretan bideratuko ditu, gelan Matematikarekin lotuta gertatzen diren harremanak kudeatuko ditu, eta ikasleen pentsamendu matematikoa aztertuko du. Irakasleen lanak izango dira honako hauek ere: ikasleek egin beharreko lana sistematizatzea, haien ikaskuntza orientatzea eta bideratzea, lan- eta ikaskuntza-erritmo desberdinak errespetatzen dituzten jarduerak eta lanak ematea, ikasgelako lan-giroa zaintzea ikasleei lanak egitea errazteko, eta zehatz-mehatz azaltzea ebaluazio-prozesua eta ebaluatzeke erabiliko diren tresnak.

Edukiak antolatzeako irizpideak

Unitate bakoitzeko edukiak antolatzeako, eduki horiek curriculumeko eduki-blokeetatik aukeratuko dira, unitate didaktikoen barruan. Beharrezkoa da oinarrizko edukiak eta bigarren mailako edukiak bereiztea, bai eta haien arteko loturak identifikatzea ere, eta, ondoren, datozen ikaskuntzetarako oinarrizkoak diren edukiak aukeratu behar dira. Bestalde, edukiak aukeratzean, kontuan izan behar ditugu honako hauek: esperientzia gauzatuko den testuinguruaren ezaugarri espezifikoak, aurretiko ezagutzen eta ikasi beharreko edukien arteko lotura, eta zer ordenatan aurkeztuko diren sekuentziaren barruan.

Jarduera motak

Unitate didaktikoetan, era askotako jarduerak aurkeztuko dira; besteak beste, sarrera-jarduerak, garapen-jarduerak, indartzeko edo sakontzeko jarduerak, eta zabaltzeko jarduerak. Hartara, ikasleen aniztasunari eta haien lan-eta ikaskuntza-erritmo desberdinei erantzun ahal izango zaie. Komeni da gai erraz eta orokorrekin hastea, eta, gero, alderdi espezifikoagoetan sakontzea. Hartara, ezagutza pixkanaka eta modu progresiboan finkatuko da. Komeni da eguneroko testuinguruetatik datozen egoerak aurkeztea jardueretan. Horretarako, ikasleen interesguneak aurkitu behar dira, familiaren arlokoak nahiz arlo akademikokoak, eta ikergai dituzten jarduera horiek ikasten laguntzen dutela ikusarazi behar zaie ikasleei. Proposatutako jarduerak honako ezaugarri hauek izango dituzte:

- Programatutako zereginaren eta ikasleen ezaugarrien arabera egokituko dira jarduerak.
- Sekuentzia didaktikoak motibazio-jarduera batekin edo sekuentziarekin lotura duen problema batekin hasiko dira, eta gero gai sakonduko da.
- Sekuentziako lan-prozesuan zehar, ikasleek egin beharreko lanari buruz hausnartzeko jarduerak egongo dira.
- Azken emaitzak berrikusteko jarduerak egongo dira.
- Sekuentzia didaktikoen amaieran, zabaltzeko eta sakontzeko jarduerak egongo dira.
- Indartzeko jarduerak proposatuko dira, ikasleen aniztasunari erantzuteko.
- Norberaren lana berrikusteko edo lan horri buruz hausnartzeko jarduera osagarriak proposatuko dira, hala badagokio.
- Jardueretako batzuk ebaluazio-jarduera gisa erabiliko dira.

Ikasleak taldekatzea

Banakako lana eta taldeko lana txandakatuko dira, eta bermatuko da ikasleek binaka edo hirunaka lan egingo dutela astean behin gutxienez, ahalmen, interes eta trebetasun desberdinak dituzten ikasleen arteko lankidetzaz sustatzeko. Unitate guztietan, eta, batez ere, hausnartzeko jardueretan, banaka nahiz taldeka egindako lana talde handian adierazteko uneak egongo dira.

Ebaluaziorako printzipioak eta prozedurak

Ikasleek barneratutako ezagutzak ebaluatzeak haien ezagutzak eta trebetasunak zein diren jakiteko aukera ematen digu. Hartara, kalifikazio bat jar diezaiekegu, eta ikasleen ikaskuntza-prozesua ere egokitu dezakegu. Gainera, ebaluazioak irakasleoi ere eragiten digu; izan ere, ikasleek egindako aurrerapenetatik ateratzen dugun informazioa lagungarri izan dakiguke gure lana ebaluatzeke eta beharrezko diren aldaketak egiteko, bai unitate didaktikoan aurkeztutako jardueretan, bai erabilitako metodologian.

Erabiliko diren baliabideak

Unitate didaktiko bakoitzeko baliabideak erabiliko dira nagusiki. Informazioa bilatzeko eta aukeratzeko, irakasleak aurrez aukeratutako orriak erabiliko dira; euskarri analogikoetako (dadoak, fitxak...) baliabideak ere erabiliko dira. Programazioan jaso gabe dagoen material osagarriren bat ekartzeko aukera ere emango zaie ikasleei.

Espazioen eta denboren antolaketa

Saio gehienak ikasgelan egingo dira. Baliabide informatikoak ohiko ikasgelan erabiliko dira sistematikoki. Beraz, gelan egongo dira, behar direnean erabili ahal izateko.

Denborei dagokienez, Matematikako bi saio elkartzeko aukera dagoen aztertuko da eta, horrela, proiektuak modu sakonagoan landu ahal izango da. Irakasleak behar adina denbora emango du oinarrizko edukiak eta prozedurak aurkezten eta azaltzen.

3.2.4. EBALUAZIOA

Definizioa

Ebaluazioa honako hau da: informazioa modu sistematiko eta etengabean jasotzeko eta baloratzeko prozesua, gero erabakiak hartzeko erabiltzen dena. Irakasteko eta ikasteko prozesua hobetzeko motorra da. Ikasleen emaitza akademikoak baloratzeaz gain, zer irakasten den, nola irakasten den, zer ikasten den eta nola ikasten den zehazten du.

Irakasteko eta ikasteko prozesuari buruzko informazio garrantzitsua ematen die irakasleei, ikasleei eta familieei, eta prozesu hori ikasleen benetako beharretara egokitzeko aukera ematen du.

Dena den, hurrengo puntuetan, ikasleen ebaluazioarekin zuzenean lotuta dauden alderdiak soilik jasoko dira.

Ebaluazioaren lau alderdi bereiziko ditugu:

3.2.4.1. Ebaluazio-irizpideak

Definizioa

Ikasleek helburuak zenbateraino barneratu dituzten baloratzeko erreferentziak dira ebaluazio-irizpideak. Ebaluazio-irizpideei esker, garbi ikus daiteke zenbateraino garatu dituzten oinarrizko gaitasunak arlo edo irakasgai bakoitzean. Ebaluazio-irizpideak jokabide hautemangarrien bidez zehazten dira: jokabide hautemangarri horiek ebaluazio-adierazleek identifikatzen dituzte.

Kontrol-galderak

- Ebaluazio-irizpideak proposatutako helburuekin lotuta al daude?
- Ebaluazio-irizpideek ikasleen oinarrizko gaitasunen garapena baloratzen al dute?
- Ebaluazio-adierazleek behar adina zehazten al dute ebaluatuko dena?
- Adierazi al da zein diren hurrengo ikasmailetan arrakastaz jarraitzeko "ezinbesteko" irizpideak?
- Aniztasunari modu egokian erantzuteko behar adinako malgutasuna ematen al dute ebaluazio-adierazleek?

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
ADIBIDEA [LH]**LEHEN HEZKUNTZA: 3. zikloa**
NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA

3. Giza gorputzaren bizi-funtzioetan parte hartzen duten organo garrantzitsuenak identifikatzea eta kokatzea, eta haien arteko interkonexioaz eta funtzionamenduaren eta zenbait osasun-ohituraren arteko harremanaz jabetzea.

- **Ea badakien giza gorputzak nola funtzionatzen duen.** Zelulak, ehunak, organoak, aparatuak, sistemak.
- **Ea era kritikoan aztertzen dituen bizimoduek osasunean eragiten dituzten ondorioak,** eta ea lotzen dituen gorputzaren funtzionamendua eta zenbait osasun-ohitura.
- **Ea onartzen dituen bere gorputza eta bere sexu-nortasuna;** ea desberdintasunak era positiboan balioesten dituen.

10. Egoera edo arazo errazei buruzko txosten bat aurkeztea euskarri digitalean eta paperean; hainbat iturritatik informazioa jasotzea (zuzenekoak, liburuak, Internet...); lan-plangintzari jarraitzea, eta ondorioak ateratzea.

- Ea plangintzarik egiten duen hainbat iturritatik informazio esanguratsua lortzeko, aurre-hipotesiak planteatuz eta iturriok sistematizatuz.
- **Ea jaso eta hautatzen dituen,** helburu zehatz batekin, egoerei eta gertakizunei buruzko **hainbat iturritako datuak** (iturri zuzenetakoak, liburuetakakoak, komunikabideetakakoak, Internetekoak...).
- Ea antolatu eta aztertzen duen jasotako informazioa (laburpenak, galdetegiak...) helburu jakin batekin, ondorioak ateratzeko.
- **Ea ematen duen lortutako konklusioen berri, kasuan kasuko metodo egokiena** (grafikoa, idatziz...) eta forma komenigarriena hautatuz (horma-irudia, laburpena, koadroa...) eta ahalik eta era argiengan, dela euskarri digitalean, dela paperean.
- Ea era txukunean eta argiro azaltzen dituen lan-plangintza jakin bati jarraituz egindako prozesua, emaitzak eta ondorioak.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA: 3. maila MATEMATIKA

8. Gertaera baten probabilitatea lortzea, bai modu enpirikoan, bai aukerak zenbatuz (kasu errazetan).

- Ea identifikatzen dituen ausazko saiakuntza erraz baten oinarriko gertaerak.
- Ea lortzen duen ausazko gertaera baten maiztasun erlatiboa.
- Ea probabilitate bat esleitzen dion gertaera bati, haren maiztasun erlatibotik abiatuta, simulazioaren edo saiakuntzaren bidez.
- Ea datuak zenbatzeko oinarriko teknikak erabiltzen dituen, hala nola zuhaitz-diagrama eta taula.
- Ea behar bezala aplikatzen duen Laplaceren legea, gertaera baten probabilitatea lortzeko.
- Ea ausazko gertaera bat gertatzeko probabilitateari buruzko erabaki arrazoituak hartzen dituen, lortutako emaitzetan oinarrituta.

9. Ausazko problemak ebaztea, egoerarako egokiak diren baliabide heuristikoak erabiliz eta aplikatuz.

- Ea erabiltzen dituen ausazko problemak ebazteko teknikarik ohikoenak: zuhaitz-diagrama, zenbaketa...
- Ea behin eta berriz saiatzen den eta interesez jarduten duen ausazko problemak ebaztean.
- Ea kritikoa den lortutako emaitzekin.

10. Aintzat hartzea eta sistematikoki erabiltzea Matematika-jarduerarekin lotutako jokabideak, hala nola jakin-mina, pertseberantzia, norberaren ahalmenetan konfiantza izatea, ordena eta sistematikoki berrikustea. Era berean, talde-lanean aritzea, besteen iritziak errespetatuz eta aintzat hartuz ikaskuntza-iturri gisa, eta helburu komuna lortzen lagunduz.

- Ea badakien zeinen garrantzitsua den eragiketa eta prozedura matematikoak jakitea, eguneroko eta eskolako problemak ebazteko.
- Ea interesa agertzen duen eta behin eta berriz saiatzen den lanean.
- Ea txukun, argi eta garbi aurkezten dituen emaitzak.
- Ea bere mailari dagokion zehaztasunaz justifikatzen eta azaltzen dituen prozesuak eta emaitzak.
- Ea parte hartzen duen talde-laneko zereginak banatzen.
- Ea beste aukera batzuk proposatzen dituen, eta ea balioesten duen taldean eztabaidatzeak eta iritziak elkarri adierazteak hobetzeko ematen duen aukera.

3.2.4.2. Ebaluatzeko tresnak

Definizioa

Ebaluazio-tresnak irakasteko eta ikasteko prozesuan informazio esanguratsua jasotzeko erabiltzen diren baliabideak dira. Hona hemen horietako batzuk:

- galdetegiak
- idatzizko probak
- ahozko probak
- banakako nahiz taldeko lanak, zenbait euskarritan
- behaketa-eskalak
- kontrol-zerrendak
- ikasgelako koadernoak
- portfolioak
- kontratu didaktikoa
- beste batzuk

Kontrol-galderak

- Zehaztu al dira ebaluazio-tresnak?
- Era askotako tresnak al daude, ikasleen aniztasunari behar bezala erantzuteko?
- Ebaluazio-tresnak behar bezala lotuta al daude ebaluazio-irizpideekin?
- Koherenteak al dira erabilitako metodologiarekin?
- Ba al dago ikasleek irakasteko eta ikasteko prozesuaren ebaluazioan parte hartzeko aukera ematen duen tresnarik?

EBALUATZEKO-TRESNAK
ADIBIDEA [LH]

LEHEN HEZKUNTZA: 3. zikloa
NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA

Sekuentzia didaktiko bakoitzean zehar, tresna desberdinak erabiltzen dira. Tresna horiek, batez ere, ikasleei euren ikasketa-prozesua hobetzen laguntzen dien ebaluazio hezitzaile bat egiteko balio dute. Tresna horiek autoebaluazioa eta koebaluazioa egiteko aukera ematen dute:

- Testuen zirriborroak hobetzeko txantiloiak.
- Norberaren testuak eta bestelako ikasketak baloratzeko txantiloiak.
- Testuak eta bestelako ikasketak koebalutzeko txantiloiak.
- Talde-lana baloratzeko behaketa-txantiloiak .
- Prozesua ebalutzeko errubrikak .

Hiruhilekoan zehar froga bat egingo da sekuentzia didaktiko bakoitzaren amaieran.

Ikasturtean zehar, ikasleen emaitzak kalifikatzeko honakoak erabiliko dira:

- *Ikaslearen koaderno*
- *Taldean egindako lanak*
- *Ikaslearen portafolioan jasotzen joango diren ekoizpenak*

EBALUATZEKO-TRESNAK
ADIBIDEA [DBH]

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA: 3. maila
MATEMATIKA

Honako tresna hauek erabiliko dira, nagusiki, ikasleek ikaskuntza ebaluatzeko:

- **Ikaslearen koaderno**. Ikaslearen koaderno kontrolatuz, honako alderdi hauek balora ditzakegu: idazmena, egindako jarduerak, ondorioak eta laburpenak egin dituen edo ez, zer prozedura erabili dituen, txukuntasuna...
- **Eguneroko lana ikasgelan**. Honako alderdi hauek aztertuko dira nagusiki: interesa, motibazioa, lan-ohiturak, arreta, parte-hartzea, ahozko eta idatzizko mezuak ulertzeko zailtasuna, ebazteko tekniken eta algoritmoen aplikazioa...
- **Idatzizko proba objektiboak**. Banakakoak izango dira, eta honako hauei buruzko informazioa jasoko dute nagusiki: unitate didaktikoetako oinarritzko ezagutzak, arrazoitzeko metodoak, prozedura jakin batzuen aplikazioa... Modu antolatuan egingo dira, eta ikasleek ebaluazio-irizpideen berri izango dute.
- **Autoebaluaziorako txantiloiak**.
- **Egindako problemen eta lanen** portafolioan Ikasleen lan jakin batzuk aukeratuko dira, eta egindako ahalegina, aurrerapenak eta lorpenak azalduko dituzte.

3.2.4.3. Kalifikazio-irizpideak

Definizioa

Kalifikazioa ebaluazio-prozesuaren ondoren hartzen den erabakietako bat da. Araudiak ezarritako balorazio-eskalaren arabera kodetutako adierazpena da.

Erabilitako ebaluazio-tresna bakoitzari ematen zaion pisua edo balioa adierazten dute kalifikazio-irizpideek. Era berean, tresna horietako bakoitzaren diseinuan berariaz adierazi beharko da zer kalifikazio (puntuazio) izango duen galdera bakoitzak, item bakoitzak, alderdi bakoitzak...

Kontrol-galderak

- Adierazi al da zer pisu edo balio duten erabilitako tresnek (probak, lanak, behaketa, portfolioa...)?

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK ADIBIDEA [LH]

LEHEN HEZKUNTZA: 3. zikloa NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA

Ebaluazio-aldi bakoitzean eta arloaren amaierako ebaluazioan, ikasleen emaitza akademikoak kalifikatzeko erabiliko diren irizpideak hauek dira:

- Ikaslearen koadernoak: % 15.
- Taldean egindako lanak: % 30.
- Ikaslearen portafolioan jasoko diren lanak: % 30.
- Sekuentzia didaktiko bakoitzaren amaierako frogak: % 15.
- Behaketa-txantiloietan jaso den gelan egindako lana: % 10.

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK ADIBIDEA [DBH]

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA: 3. maila MATEMATIKA

Kalifikazio-irizpideek baremazio honi jarraituko diote:

- Idatzizko probak: % 50.
- Eguneroko behaketa: % 25.
- Ikasgelako koadernoaren eta aurkeztutako lanen kontrola: % 25.

3.2.4.4. Ebaluazioaren ondorioak

Definizioa

Ebaluazioaren ondoren hartzen diren erabakiak dira, eta aniztasunari erantzuteko oinarria osatzen dute:

- Ikaskuntza-prozesuan, honako hauek izan daitezke: indartzeko, egokitzeko edo zabaltzeko neurriak, curriculumak aberasteko neurriak, programa espezifikoetan parte hartzea...
- Irakaskuntza-prozesuan eta programazioan bertan, aldaketak egin daitezke metodologian, irakasle-lanean, plangintzan...

Kontrol-galderak

- Ba al dago hezkuntza indartzeko edo curriculumak egokitzeko neurririk, helburuak lortzen ez diren kasuetarako?
- Ba al dago curriculumak aberastuz egokitzapenak egiteko neurririk, helburuak aise gainditzen diren kasuetarako?
- Indartzeko nahiz aberasteko neurrien kasuan, proposamenak desberdinak (ez dagoeneko egindakoaren errepikapen hutsak) al dira, eta ikasle bakoitzari hautemandako beharretara egokitzen al dira? Ba al dago gainditu ez den arloa edo irakasgaia zikloaren edo ikasmilaren amaieran errekupe-ratzeko sistema espezifikorik?
- Ezarri al da programazioa edo programazioaren osagai batzuk berrikusteko edo egokitzeko unerik?

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK
ADIBIDEA [LH]

LEHEN HEZKUNTZA: 3. zikloa
NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA

Irakasle-taldeak banakako plan bat prestatuko du arloko helburuak lortzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat (laguntza-plana), edo helburuak oso erraz lortzen dituztenentzat (aberastea) guztien laguntza-premiei erantzute aldera.

Horrez gain, ikasleen familiak informatuta egongo dira eta orientabideak emango zaizkie hiruhileko bakoitzaren amaieran, euren inplikazioa bultzatzeko.

Ebaluazio bakoitzaren bukaeran, irakaste-ikaste prozesuaren balorazioa egingo da, hurrengoak kontuan hartuta:

- Helburuen egokitasuna
- Edukien antolaketa eta hiru eduki moten arteko oreka
- Gelaren antolamendua
- Ikasle-taldearen ezaugarriak, interesa eta parte-hartzea
- Ikasle-taldeak antolatzeko irizpideak
- Erabilitako materialak

Balorazio horretatik abiatuta, aldaketak sartu ahal izango dira plangintzan, beharrezkoa ikusten bada.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK
ADIBIDEA [DBH]

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA: 3. maila
MATEMATIKA

Matematika irakasgaiari, mintegiko irakasle guztien artean balorazio-saio bat egitea proposatzen da. Saio horretan, ebaluazioan zehar erabili den plana berrikusiko da, ikusitako hutsuneak konpontzen saiatzeko. Proposatutako jarduerari buruzko ikerketa orokor bat egingo da, bai eta egindako jardueraren baten eraginkortasunari buruzko ikerketa zehatzago bat ere.

Lortutako emaitzetatik abiatuta, beharrezko diren aldaketak egingo dira unitatean, haren akatsak eta hutsuneak konpontzeko, eta, oro har, irakasteko eta ikasteko prozesua hobetu ahal izateko, indartzeko eta zabaltzeko jarduerak egokiak proposatuz.

4. Bibliografia

- ✚ CABRERIZO DIAGO, J. (2010). *Guía para elaborar una programación por competencias*. Madril: UNED.
- ✚ CABRERIZO DIAGO, J.; RUBIO, M. J. eta CASTILLO, S. (2007). *Programación por competencias. Formación y Práctica*. Madril: Pearson.
- ✚ COLL SALVADOR, E. (2006). Lo básico en la educación básica. Reflexiones en torno a la revisión y actualización del currículo de la Educación Básica. 2011ko ekainaren 13an kontsultatua web-orri honetan: <http://redie.uabc.mx/vol8no1/contenido-coll.html>
- ✚ ESCAMILLA GONZÁLEZ, A. (2009). *Las competencias en la programación de aula (Vol. I): Infantil y primaria (3-12 años)*. Serie Competencias. Bartzelona: Graó.
- ✚ ESCAMILLA GONZÁLEZ, A. (2011). *Las competencias en la programación de aula (Vol. II): Educación secundaria (12-18 años)*. Serie Competencias. Bartzelona: Graó..
- ✚ GIMENO SACRISTÁN, J. (2008). Diez tesis sobre la aparente utilidad de las competencias en educación. In GIMENO SACRISTÁN, J. [et al.] (2008) *Educación en competencias, ¿qué hay de nuevo?* Madril: Morata.
- ✚ MOYA OTERO, J. eta LUENGO HORCAJO, F. (2010). La concreción curricular de las competencias básicas: un currículo adaptativo e integrado. *CEE. Participación Educativa*, 15, 127-141. or.
- ✚ ORTEGA OSUNA, J.L. eta VÁZQUEZ FERNÁNDEZ, P. (2012). *Competencias básicas. Desarrollo y evaluación en Educación Primaria*. Madril: Wolters Kluwer.
- ✚ ORTEGA OSUNA, J.L. eta VÁZQUEZ FERNÁNDEZ, P. (2012). *Competencias básicas. Desarrollo y evaluación en Educación Secundaria Obligatoria*. Madril: Wolters Kluwer.

eranskinak

1. PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN EZAUGARRIAK

Programazio didaktikoan, ezaugarri hauek azpimarratu behar dira:

- 📌 **Profesionala:** irakasle-taldeak hausnartu egiten du, zehaztu egiten du, erabakiak hartzen ditu, eta, hala badagokio, aurreko programazioa berrikusten du. Irakasleek irakaskuntzan duten esperientzia adierazten du programazioak, eta azaltzen du zer baldintza bete behar dituen irakasle-lanak, hezkuntza-sistemako helburuen arabera (hezkuntza inklusiboa, zientifikoa, kalitatezkoa, herritarrak prestatzera bideratua...). Beraz, programatzea irakasle-lanari dagokion berezko jardueretako bat da, eta, gainera, programazioa egiten duen irakasle-taldearen ardura erakusten du.
- 📌 **Zientifikoa:** programazioa egiteko, irakasle-taldeak informazio egokia eta eguneratua lortu behar du, gutxienez, bi iturri hauetatik: alde batetik, hezkuntzan egin diren ikerketen ekarpenetatik, eta, bestetik, iturri epistemologikotik. Irakaskuntzako esperientzia garrantzitsua da, baina norberaren esperientzian soilik oinarritzeak arrisku bat du: intuizioz jokatea eta norberaren ezagutza profesionalaren berezitasunetan soilik oinarritzea.
- 📌 **Praktikoa:** programazioa irakasteko eta ikasteko prozesuari laguntzeko baliabide bat edo tresna bat da, eta honako hauek hartzen ditu barnean: hezkuntza-jardueraren antolaketa eta garapena, koordinazio horizontala (ikasgela, ikasmila, zikloa...) eta koordinazio bertikala (ikasmila guztietako etapa-taldeak, departamentuak...). Ikasturtean zehar irakasleen lanerako oso erabilgarria izango den oinarritzeko materiala da. Prozesua nahiz emaitza lantzen ditu. Erreferentzia bat da honako hauetarako:
 - Irakasteko eta ikasteko prozesua egituratzeko (lortu beharreko helburuak adierazten ditu, edukiak ikasturtean zehar antolatzen eta tenporalizatzen ditu, zer metodologia erabiliko den erabakitzen du, noiz eta nola ebaluatu azaltzen du, zer tresna erabiliko diren horretarako...).
 - Irakasle-taldeak hartzen dituen erabakien oinarritzat erabiltzeko, eta ikasleek edo familiek irakasleekin izan ditzaketen desadostasunak edo egin diezazkieketen erreklamazioak dokumentatzeko.
 - Ikastetxearen Curriculum Proiektuan zehaztutako printzipioak zehazteko, egoera korapilatsuetan erabakiak hartu behar direnean; adibidez, indartzeko edo zabaltzeko baliabideak jarri behar direnean (ikasle bakoitzaren ezaugarrien arabera).
 - Modu koherentean egiteko jarduera osagarrien plana (irteerak, bisitak, hitzaldiak, txangoak...).
- 📌 **Dinamikoa:** programazioa ikasturtearen hasieran egiten da, besteak beste, aurreko ikasturteetako esperientzietatik abiatuta. Hezkuntza-jardueraren ardatz gisa erabiltzen da ikasturtean zehar, eta berrikusi edo eguneratu egin daiteke. Azkenik, baloratu egiten da ikasturtearen amaieran, irakasleen hausnarketaren eta autoebaluazioaren bidez.

↳ **Demokratikoa:** programazioak adierazi behar du irakasle-lanaren kudeaketa gardena dela, eta irekita dagoela gainerako irakasleentzat eta, noski, hezkuntza-komunitatearentzat (ikasleak eta familiak), haren berri izateko eskubidea baitute, araudiaren arabera.

↳ **Zentratua:** arlo edo irakasgai baten programazioak modu koherentean uztartu behar ditu honako hauek:

- Indarrean dagoen lege-esparrua, curriculum eta ebaluazioa arautzen dituenak, besteak beste.
- Ikastetxearen testuingurua, ikasleen eta ingurunearen ezaugarriak barnean hartuta (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan eta/edo Curriculum Proiektuan jasota egongo da).
- Beste faktore eta baldintzatzailerik batzuk; adibidez, ikastetxearen parte-hartzea duten programak eta proiektuak.

2. OINARRITZAT DUEN ARAUDIA

Orain, programazio didaktikoa egitearekin lotutako arau-erreferentzia nagusiak adieraziko ditugu. Hemen emango den informazioa orientatzailea baino ez denez, informazio zehatzagoa jaso nahi dutenek araua bera kontsultatu beharko dute, erreferentzia hauetatik abiatuta.

2.1. 2/2006 LEGE ORGANIKOA, MAIATZAREN 3KOA, HEZKUNTZARI BURUZKOA (BOE, maiatzak 4)

LOEk ezarritakoaren arabera, irakasleen funtzioetako bat da esleituta dituzten *arloak eta irakasgaiak programatzea* eta irakastea. Legeak dioenez, funtzio hori, esleitzen zaizkien gainerako funtzioekin batera (besteak beste, ikasleen ikasteko prozesua ebaluatzea, ikasleen tutoretzaz eta orientazioaz arduratzea, irakasle-jarduerak koordinatzea, familiei informazioa ematea), *lankidetzaren eta talde-lanaren printzipiopean* egin beharko da.

(2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa; 91. artikulua)

2.2. 1/1993 LEGEA, OTSAILAREN 19KOA, EUSKAL ESKOLA PUBLIKOARI BURUZKOA (EHAA, otsailak 25)

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen arabera, *Ikastetxearen Curriculum Proiektua* epe ertainera hezkuntza-jarduera arautzen duen baliabide bat da, eta ikastetxe bakoitzak dagokion autonomiaz egiten du berea. Araudiari jarraituz, ICPn honako hauek erabaki behar dira: irakaskuntzaren helburuak eta edukiak, edukien banaketa, irizpide pedagogiko komunak, aukera metodologikoak, hezkuntza-premia bereziei arreta, eta ebaluazio-irizpideak. Ikastetxe bakoitzak bere ICP egin behar du, eta jasota geratu behar du *irakaskuntza-jardueren programan, ikastetxearen urteko planaren barruan*.

Bestalde, azpimarratu behar da lege horrek ezartzen duela irakasleak Ikastetxearen Hezkuntza Proiektura eta Ikastetxearen Curriculum Proiektura lotuta daudela. Lotura horrek eragina du, legean adierazten den moduan, eskolako jarduera programatzeko eta gauzatzeko hartzen den edozein erabakitan, bai eta jarduera-programek ezagutza-arloetan duten aplikazioan ere.

(1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa; 28., 47. eta 48. artikulua)

2.3. 175/2007 DEKRETUA, URRIAREN 16KOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OINA-RRIZKO HEZKUNTZAREN CURRICULUMA SORTU ETA EZARTZEKO (EHAA, azaroak 13). Martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuak aldatua (EHAA, apirilak 20)

Dekretuak Oinarrizko Hezkuntzaren eredu bat ezartzen du, honako printzipio hauek hartuta oinarritzat, besteak beste: ikasleen ahalmenen garapen integrala lortzea, eta ikasleek pertsona gisa, gizartean eta akademikoki heltzeko behar dituzten oinarrizko gaitasunak garatzea.

Azpimarratu behar da *curriculumak ikasleek izan beharreko gaitasunei*

erreparatzen diela, eta horrek eragina duela arloetako eta irakasgaietako lan-planteamenduetan, bai eta ikastetxeek bultzatutako era guztietako esperientzietan ere, bai eskolakoetan bai eskolaz kanpokoetan. Izan ere, ikasle guztiek *oinarrizko gaitasunak eskuratzera* bideratzen du hezkuntza-jarduera.

Curriculumean jasotako beste printzipio orokorretako bat da Oinarrizko Hezkuntzari (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) izaera hezitzailea eta orientatzailea ematen zaiola. Garrantzitsua da hori kontuan hartzea; izan ere, alderdi hori betetzeak eta garatzeak esan nahi du, ezinbestean, bi etapetako *irakasle guztiak direla hezitzaile, eta batera eta modu koordinatuan esku hartu behar dutela, dagokien hezkuntza-etapan eta curriculum-arloan*. Beraz, ikuspegi horretatik, derrigorrezko hezkuntza-tarte komun hau osatzen duten bi etapetako irakasleek beren ekarpena egin behar dute ikasleen prestakuntza-prozesuan.

Ikastetxearen Curriculum Proiektuak, dekretu honetan aurkeztutako curriculuma zehazten duenez eta ikastetxeetako klaustroek eginga denez, honako hauek jaso behar ditu, besteak beste: ikasmaila edo ziklo bakoitzean gainditu beharreko helburuei buruzko erabakiak, bai eta horiekin lotutako ebaluazio-irizpideak ere. Gainera, bi erabaki horiek publiko egin behar dira. Bestalde, arauaren artikuluek adierazten duten moduan, ikasmaila edo ziklo berean irakasten duten irakasleek beren ikasgelako programazioak koordinatu behar dituzte eta elkarrekin koherenteak izateko moduan planifikatu behar dituzte.

Bestalde, ezin da ahaztu *Oinarrizko Hezkuntzaren azken xedea ikasleen potentzialtasun osoa garatzen laguntzea dela, horietako bakoitzak dituen aukera errealei erreparatuta*. Beraz, ikastetxeen curriculum-planteamenduetan, oso kontuan hartu behar da ikasleen aniztasunari erantzutea eta ikasteko zailtasunak hautematea eta tratatzea, bai Ikastetxearen Curriculum Proiektuan hartzen diren erabakietan, bai ikasgelako plangintzan eta programazioan garatzean. Horren guztiaren helburua da bermatzea hezkuntza-jarduerak ikasleen aniztasunak dakartzan beharrei erantzungo diela, *ingurune normalizatu eta inklusibo batean*, eta ikasle guztiek oinarrizko gaitasunak lortzeko bideak jarriko direla.

(175/2007 Dekretua, urriaren 16koa; 17., 19., 20. eta 21. artikulua)

2.4. AGINDUA, 2008KO UZTAILAREN 7KOA, OINARRIZKO HEZKUNTZAN IKASLEEN EBALUA-ZIOA ARAUTZEN DUENA (EHAA, uztailak 3)

Hasierako ebaluazio bat ezartzen du bi etapen (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) hasieran, ebaluazio-prozesuaren abiapuntu gisa. Oinarrizko Hezkuntza osoan ebaluazioa *banakatua eta jarraitua* izatea planteatzen da. Lehen Hezkuntzan, *orokorra* izango da, ikasleek curriculumeko arlo guztietan oinarrizko gaitasunei dagokienez egindako aurrerapenei erreparatuko baitie; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, *berezia* izango da, irakasgaitan, alorretan eta modulutan bereiziko baita, oinarrizko gaitasunak kontuan hartuta betiere.

Agindu honek zehaztutakoaren arabera, curriculumean ziklo eta maila bakoitzeko arlo eta ikasgaietarako ezarritako *ebaluazio-irizpideak*, *Ikastetxearen Curriculum Proiektuan* eta *programazio didaktikoetan* zehaztuak, izango dira *ebaluazioaren erreferentzia nagusiak*. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan,

berriz, dagokion jarduera-planak ezarritako irizpideak hartuko dira erreferentziazat.

Bestalde, proposatzen den ebaluazio-prozesuak berekin dakar hezkuntza indartzeko neurriak ezartzea aurrerapen egokia ez duten ikasleentzat, eta ikasteko zailtasunak hauteman bezain pronto hartzea neurri horiek.

Irakasleek dagokion taldearen tutoreak koordinaturik egiten dituzten *ebaluazio-saioetan*, arlo edo irakasgai bakoitzeko irakaslearen ardura izango da arlo edo irakasgai horren hasierako kalifikazioa ematea, baina irakasle-taldeak *batera jardungo du* ebaluazio-prozesu horren ondorioz hartu beharreko erabakiak hartzean. Erabaki horiek aho batez onartuko dira, eta, erabateko adostasunik egon ezean, irakasle-taldearen bi herenen akordioz.

Horrez gain, ebaluazio-saio horietan, irakasle-taldeak erabakiko du zer informazio eman behar zaion familiari ikaslearen ikaskuntza-jardueren eta -prozesuaren emaitzari buruz, bai eta hezkuntza indartzeko jasotako neurriei buruz ere. *Informazioa* idatziz *emango zaie familiei*, hiru hilean behin gutxienez, eta garrantzitsutzat jotzen den informazio oro jakinaraziko zaie.

Bestalde, ikasleek beren eskola-errendimendua objektibotasun osoz baloratua izateko duten eskubidea bermatze aldera, *ikastetxeek publiko egin behar dituzte, nahitaez, ikaskuntzak ebaluatzeko, hurrengo mailara igotzeko eta titulua emateko erabiltzen dituzten irizpideak*. Alde horretatik, araudiak ezartzen du, curriculum ofizialaz gain, ikastetxeetako irakasleentzat *lotesleak* direla beste hauek ere: Ikastetxearen Curriculum Proiektua, ikasgelako programazioak eta argitaratu diren kalifikazio-irizpideak. Era berean, azaltzen du ikasleen familiek edo haien legezko ordezkariak eskubidea dutela ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina duten *lan, proba eta jarduera* zuzenduak *gainbegiratzeko*, eta jasotako kalifikazioen azalpen arrazoituak entzuteko. Alde horretatik, ikastetxeek *erreklamazio-prozedura* bat jarri behar dute araudiari jarraituz, familiek berrikuspen hori eskatu ahal izateko eta egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Ikasleak ebaluatzeko eta mailaz igotzeko irizpideen aplikazioari dagokionez, azpimarratu behar da hezkuntza indartzeko *plan espezifikoa pertsonalizatua* aipatzen dela berariaz, zikloa, etapa edo ikasmaita *ez gaintitzearen* kasuan. Plan horiek garrantzitsuak dira, ikasleak izandako zailtasunak gaintitzen laguntzeko hezkuntza-erantzun bat prestatzen dutelako.

(Agindua, 2008ko uztailaren 7koa; 2., 11., 12., 15., 16., 19. eta 20. artikulua)

3. PROGRAMAZIOA EGITEKO EREDUZKO TXANTILIOIA

Urteko/zikloko programazio didaktikoa Programación didáctica anual/de ciclo

ikastetxea: <i>centro:</i>		kodea: <i>código:</i>	
etapa: <i>etapa:</i>		zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>			
irakasleak: <i>profesorado:</i>		ikasturtea: <i>curso:</i>	

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoka, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...] **SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...]

--

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

--

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...]</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa] CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación]</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuerazio-sistema...] CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...]</p>	

OHARRAK OBSERVACIONES

--

